

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko urriaren 22a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Belagoa • Nafarroa Kirol Elkarteak antolaturik, Gazteen III. Mendi Ibilaldia egingen dute igandean

Txuri Olo • «Zabaldi kanpokoan hitza entzuteko topagunea da»



Eskalada Iruñeko gotorlekuan

Iruñeko gotorlekua, garai bateko funtzio militarra alde batera utzita, aisiarako eta olgetarako lekua da egun. Gotorleku barnean makina bat erakusketa egiten dira, eta harresiak inguratzen duten Gazteluko Itzuliaren berdegunea paseatzeko, lasterka egiteko edota futboleko aritzeko erabiltzen da. Gotorlekuko harresi zaharrak, berriz, eguraldi oneko egunetan, eskalatzeko baliatzen dituzte, bai eskalatzaile gazte hasi berriek, bai eskalatzaile ikasiek, entrenatzeko, Iruñean rokodromo publikorik ez dagoenez.

• JOSU SANTESTEBAN

Lizarra • XIX. mendeko etxeen margoak agerian

Ohikoak ziren margoak berreskuratzen ari dira hainbat eraikinetan

Baztan

Kirikoketa
besta eginen
dute bihar

BAZTANGO KIRIKOKETARIEK eta Kirikoketan Jo ala Jo taldeak antolatuta, bihar Kirikoketa besta eginen dute Baztan aldean. Kirikoketa lanerako soinu erritmikoa da. Sagarra zanpatzeko mazarekin jotzen da dolareetan, zuku ateratzeko erabiltzen den tresnan. Antolatzaileetako batek azaldu duenez, «Gipuzkoa aldean gehienak zurezkoak izaten dira, baina Baztangoak lauzazkoak izaten dira. Lanean zirelarik, ez nekatzeko edo, erritmoan egiten zuten lanean, joko balitz bezala».

Goizean herriz herri eta baserriz baserri ariko dira dolareetan kirikoketa jotzen. 16:30etan, ezkil jotzea izanen da. Gartzainek Iruritarekin batean joko du, eta Elizondok Elbeterekin. 17:00etan, Elizondoko plazan, sagar jotzea izanen da. Gero, jendea iri zuku edateko emanen diote. Zukua laguntzeko taloa eta gaztainak izanen dira.

19:00tan txalaparta jaialdia hasiko da Baigorri, Leitza, Arano, Berriozar, Uhartea eta Burlatako txalapartariekin. Triki poteoa, afaria, kontzertua -Gorramendi 10, Tomahack eta K-Haba taldeekin-, disko jartzaile baten emanaldia eta txalaparta gaupasak osatuko dute egitaraua.

Alde Zaharrean lanean atera duten ondorioa, eta, ikerketa hori abiapuntu hartuta, margoak izan duten balioa berreskuratu egin da Lizarran. Ikerlehen erranetan, «urteen poderioz, apainduta dauden etxeen aurrealdeak ezabatuz joan dira, baina, egun, lehengo ohitura zabaldu da, eta zenbait etxetan margoak berreskuratzeko asmoa agertu dute».

Bi ahizpek egindako lanak Eusko Ikaskuntzaren dirulaguntza jaso du. Garai bateko gauza bitxi eta harrigarri baten berri ere ematen da lan horretan. Lizarrako auzoetan apaingarri modu ezberdinak erabiltzen ziren, egoera sozioekonomiko ezberdinen lekuko. Hala, San Joan auzoan luxuzko aurrealdeak ikus zitezkeen; San Migel eta San Pedro auzoetan berriz, bertzelako xehetasunak ikus zitezkeen, han bizi zen jendearen maila ekonomikoa txikiagoa zen seinale.

→ Kristina Berasain

→ Asier Azpilikueta

XIX. mendean Lizarran kolore anitzetako etxeak ikus zitezkeen. Egun, eraikinen aurrealdeetan antzinako margo horiek berreskuratzen ari dira, historiaren lekuko direnei garrantzia eman nahian.



Azken egunotan margotu berri duten etxearen aurrealdea.

• KRISTINA BERASAIN


LIZARRAKO ALDE ZAHARRA kolorea berreskuratzen hasi da. Zenbait karrikatan kolore bitxiak ikus daitezke: arrosa ilunak, berde argiak edota horixkak. Etxeen aurrealdeak kolorez jantzi dira, eta tartean margoak eta irudiak ere ikus daitezke. Azken hilabeteetan zenbait etxe zaharretan eraberritze lanak egiten ari dira, eta horren ondorioa da XIX. mendeko ohitura horren berreskurapena. Lizarrako Udaleko Etxe Barrua Zaindu eta Berritzeko Plan Bereziak (PEPRI), antzinako artelan horien iraupena bermatzeko, arautegi berri bat jarri du martxan, eta dagoeneko

aurreneko ereduak ikus daitezke. Ega ibaiak zeharkatzen duen hiriko hiru etxetan antzinako adibidea jarraitzeko erabakia hartu dute eta, hala, margo bereziz pintatu dituzte eraikinen aurrealdea. Kale nagusian, Komertzio kalean, eta Santiago edo Foruen enparantzan agerikoa da aldaketa. Aparteko ikuskizuna da, ikuspuntu historiko eta artistiko batetik, begirada altxatu eta hormen kolore anitzetako margoei so egitea.

Haatik, 1989. urtean Lizarrako Alde Zaharreko karriketetan barna ibiliz gero, margo eta kolore ezberdinez apainduta zeuden berrehun etxe inguru ikus zitezkeen. Egund, ordea, gaineztaduraz apaindutako laurogeita hamar eraikin baino ez dira gelditzen. Azken hamar urteetan, beraz, eraikinen aurrealdeko margoen %55 ezabatu egin dira. Horixe da Blanca eta Maria Jose Sagasti ahizpek *Kromatismoa Lizarrako*

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Hitz madarikatuen euskal hiztegi modernoan sartuko nuke, arras nabarmentzekoa gainera, *gaitzetsi* hitza; uste dudalako, zer arraioa!, hitz horren kariak, edo hobetik esatera, hitz itsusi horrek zenbaitengan sortarazten dituen kezka eta saminak direla eta, nabari lardaskatu dela, berriro ere, gure eguneroko kakanahaste politikoa.

Ez, ez noa hemen hitzen adieraren kontra gaizki esaka esatera. Hitz bakoitzak badu bere esanahia, edo esanahiak; eta, horratio, tentuz ibili behar dira haiekin, hiztunok -ergel halakook!-, axolagabe erabiliz gero, behaztopa egin dezakegu eta.

Hitz joko zoro honetan gabiltzala, afizio handia baitiogu joko horri, badirudi -diot- hitzok maiz zalan-

Hitzen preso

tzakor jartzen gaituztela erabilera zuzena emate aldera, eta beldur ematen digutela, hain zuzen, gotorleku bihurtzen ditugunean. Nork ez du, esate batera, hitz horietako bat, biziki beldurtzen gaituztetenako bat, ahotik bota-ez-bota borroka horretan muturrez aurrera erori eta lurra jo?

Mailuak jo beza iltzea behingoz: puskatu baita puskatu, bai; Atarrabiako hiruko udal gobernua, gobernu aurrerakoi eta ezkertiarra. Hango zinegotzi baten aurkako erasoak salatuzko aurkezturik zeuden mozio dantza aspergarrian luze jardun ondoren, non *gaitzetsi* hitzaren soinu monotonoaren inguruan guztiak ibili diren, Atarrabia Taldea (EA), EH eta IU ez dira gauza izan elkarren arteko ohar bat adostu eta plazaratzeko orduan. Ondorio zuzena:

alkatearen dimisioa, arrazoi etikoak direla medio; eta, horrekin batera, hiruko gobernuaren porrot politikoa. Alkatetza berria, aldiz, UPNren esku geratuko da, antza: tamalgarria, inondik ere.

Badakit, ongi jakin ere, kontu semantikoa baino gehiago dela tartean dagoen afera, testuinguru politiko oso bat sartu behar dela analisisan, beste portaera biolento asko ere kontuan hartzekoak direla...; bai, eta ados nago xehetasun horiekin; hala ere... garesti ordaindu behar izan da hitza tarteko.

izarra mardularen itzalean kimu berriak -Lizarra txikiak- ugaltu behar zirela esan zuten. Kimu berri gutxi izan ditugu Nafarroan honenbestez, Atarrabiakoa izan delarik, duda gabe, emamindu diren gutxienetako bat; eiharrarazi dute, baina.

Belagoa • III. Mendi ibilaldia igandean

Nafarroa Kirol Elkarteak antolatu du, gazteentzat

**Iruñeko Nafarroa
Kirol Elkarteak
Belagoako III. Gazte
ibilaldia antolatu du,
iganderako. 16 eta 25
urte bitarteko
gazteek parte hartu
ahal izanen dute.**



16 eta 25 urte arteko gazteek har dezakete parte igandeko ibilaldian.

• EGUNKARIA

BELAGOAKO GAZTEEN IBILALDIA eginen dute igandean, hirugarren aldiz. Nafarroako Kirol Elkarteak antolatu du, eta, aurreko bi urteetan bezala, 16 eta 25 urte bitarteko gazteen artean mendigoizaletasuna piztea du helburu. Igandeko ibilaldiak, gazteen arteko topagune izan nahi du: «Egun eder bat pasatzeko aitzakia», azpimarratu du Al-

berto Ortigosak, Nafarroa Kirol Elkarteako lehendakariak.

Partaideak —gaur ere izena eman daiteke— Nafarroa Kirol Elkarteak Jarauta kaleko 78. zenbakian duen egoitzan-

goizko 06:00etan abiatuko dira, autobusean, Belagoarantz, Iruñeko Tres Reyes hoteleko kafetegiarean ondotik. Ibilaldia hiru ordu geroago hasiko da, Arrakoko trikuha-

rriaren ondoan. Handik La-kartzela igoko dute mendigoizaleek, Binbaletoko gaina gero, Lakora ondoren, eta, azkenik, Eraizko lepotik Angel Oloron aterpera jaitsiko dira.

Ibilbidean hainbat kontrolgune finko jarriko dituzte antolatzaileek, izena eman duten partehartzaile guztiak bertatik igaro direla ziurtatzeko. Hasieran eta bukaeran, halaber, kontrol ibiltariak jarriko dituzte, inor ez galtzeko. Gurutze Gorriko kideak ere izanen dira ibilbidean, ez-beharren bat gertatuz gero mendigoizaleei behar den arreta eskaini ahal izateko.

Idoia Arteta izan da aurten Belagoako Gazteen Ibilaldiko koordinatzailea. Aurreko ekitaldiek izan duten arrakasta eta harrera nabarmendu du Artetak, eta igandeko ekitaldia «gazteek mendian egun zoragarria pasatzeko aukera ezin hobea» dela galneratu. «Ea eguraldia lagun dugun, aurreko urteotan eguraldi txarra izan baitugu».

Igandekoa ez da gazteek mendira joateko izanen duten aukera bakarra, Belagoako Ibilaldiak maiatzera bitarte prestatutako txango egutegia bati hasiera emanen baitio. Anboto eta Saioara ibilaldiak prestatu dira, besteak beste.

→ Edurne Elizondo

ANDRES IÑIGO EUSKALTZAIN ITU-
rendarrak eman zion hasiera lehengoan Zaldiko Maldiko Iruñeko elkarte ezagunaren denboraldiari. Jende ugari bildu zen hark Euskaltzaindiari buruz eskaintako hitzaldian, Ansoleaga karrikan. Hilaren 27an, berriz, datorren asteazkenean, Argaren gaineko solasaldia izanen

Iruñea

Zaldiko Maldiko, abian

da: Udalaren asmoak, Argako parkea, ibaiertzak eta obrak. Bi hizlari ariko dira: Gurelur antolamenduko Iñigo Petri

eta Iñaki Piñuela teknikaria. Argako lanen inguruan polemika handia sortu da azkenaldian Iruñean, batik bat

errotaren ikamikan eta landaretzaren gehiegizko mozketaren aferan. Zaldiko Maldikok aurten ere egitarau oparoa prestatu du. Hala, hamabostean behin saioen bat izanen da. Horretaz gain, ez dute huts eginen egutegiari lotutako ohiko ekitaldiek.

→ Kike Diez de Ultzurrun



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Mixel Labeguerieren inguruan

Herria astekariak **Herria** eta kultura gehigarria plazaratu du azken zenbaki-ko orrialdeen artean. Gehigarri horrek Mixel Itzaina euskaltzaleak Mixel Labeguerieren inguruan idatzitako liburua-
ren berri aipatzen du: «Aldudarrak Batasunak hirugarren aldikotz kontzertu berezi bat apailatzen du. 1995ean Manex Pagolak idatzi kantuen inguruan iragan zen gertakaria, 1997an Etxamendi-Larraiden kantuek ukan zuten aipamena eta aurten beraz Mixel Labeguerie zenak utzi kantuen aldi izanen da. 1960-70. hamarkadan arrakasta gaitza bildu zuten Mixel Labeguerieren

kantu berriek, eta geroztik ere, beti atseginekin kantatzen edo entzuten ditugu».

«Mixel Labeguerie nor zen hobeki eza-gutzeko, Mixel Itzaina euskaltzaleari galdegin zioten bai Elkarlanean argita-
letxeak bai Euskal Kultur Erakundeak liburu bat idatz zezan eta bere lana ezinago ederki egin du. Urri honetan argitaratzen da. Izenburua dauka: *Mixel Labeguerie: kantu berritzaile eta politika gizona*. Bistan dena, Aldudeko kantaldi egunean eskuratzen ahalko duzuela».

Liburuak biltzen dituen Labeguerie-

ren inguruko hainbat datu argitara eman ditu **Herria**-k: «Mixel Labeguerie Uztaritzen sortu zen 1921eko martxoaren 4an Berautenean deitu etxean. Bordelen egin zituen bere mediku ikasketak eta Parisen bukatu. 1974an plantatu zen mediku Kanbon. Gazte denboran, bi dantza talde muntatu zituen, bata Uztaritzen eta bestea Bordelen Irrintzi izenekoa. Bertsularitza mundua ere ongi ezagutzen zuen. Politika sailan, 1962an deputatu hautatua izan zen. 1965ean Kanboko auzapez hautatua izan zen. Kargu hori hil arte atxikiko du».



**urdairen
mintzoa**

Xabier Larraburu

Krimen biribila

Villabesa hartu nuen batean hasi zen kontu hau. Txartela sartu nuen eta pi-pi-pi-ka hasi zen makina. Txoferrak orduan «Redios! Aspertuta naukazue!» eta tankera honetako zortzi esaldi bota zizkidan. Orduan-
txe erabaki nuen mendekua hartuko nuela, horixe baietz!, mendeku bortitza. Hurrengo egunean ospitalera joan nintzen sexu aldaketa egitera: «Gorde ongi zakila!»—esan nien aurretik-, «bueltatuko naiz eta!... eta kasu! Bi orizta txiki horiek dituen, hori da nirea! Ezagutuko dut gero!». Handik bi egunetara ospitaletik emakume in-pre-sio-nan-te bat kaleratu zen. Atera eta atarian bertan hiru kotxek elkar jo zuten, laugarrena txokea ekiditeko espaloira igo baitzen. Guztira hamahiru zauritu arin eta bost zalantzazkoak, larriak betiere. Etxera allegatu nintzen-
erako zaurituen kopurua mila edo bi milatan egongo zen, eta ez naiz ospitaletik oso urruti bizi. Etxean alde zurretik prestatutako COTUpeko mapa hartu eta ea 9. lineako 2. autobusa non zegoen kalkulatu nuen. Horretarako taula matematiko ezin sinpleago bat nuen antolatua. Kalkuluen arabera, Donibane auzoan beharko luke. Hara joan nintzen eta bertan aurkitu ere. Geltokian geldirik zegoen, hamabi bat bidaiari barruan, atek itxita eta txoferrik gabe. Nire atzetik gertatzen ari ziren kotxe istri-puen eztaundak entzuterakoan aldameneko tabernatik atera zen txofer madarikatua, txotxa ahoan. Ni ikusi eta aho zabal hartatik erori zen txotxa. Zain nengoela ikusirik, errinozeron-
te haurdu baten saltoarekin egin zuen gora eta atea zabaldu zidan. Ptxxsssss! Orduan nire mendekua ordua iritsi zen. Oso modu elegantean igo eta aurretik Cinabrio Sulfurikoz bustitako txartela makinan sartu nuen. Hura ke beltza atera zena! «Uii!», esan nuen nik. Eztulen artean «lasai emakume, nire soldatetik ordainduko dut makina berria», erantzun zidan berak. Mendekua egina nuen. Ospitalera bueltatu eta handik bi egunetara bi orizta txiki dituen zakila bere lekuan zegoen berriro ere. Sekulan inork ez du nire gizon-irudia krimen horrekin lotzerik lortuko. Mendeku perfektua izan da!

Gotorlekuko


Eguraldi oneko egunetan, eskalatzaileek entrenatzeko baliatzen dituzte Iruñeko gotorlekuko hormak

Iruñeko gotorlekua XVI. mendearen bukaeran eraiki zuten, garai haiek eskatzen zuten babes beharrari erantzuteko. Garaiko funtzio militarra alde batera utzita, egun aisiarako eta oigetarako lekua da. Gotorlekuaren barnean makina bat erakusketa egiten da, eta harresiak inguratzen duten Gazteluko Itzuliaren berdegunea, paseatzeko, lasterka egiteko edota futboleko aritzeko erabiltzen da. Gotorlekuko harresi zaharrak, berriz, eskalatzeko ballatzen dituzte.

GOTORLEKUAN ASPALDIDANIK ESALATZEN da. Xabier Martinez de Lezea 23 urteko iruindarrak ere aspaldi utzi zion gotorlekura joateari. Berak azaldu duenez, gotorlekura joaten dira «eskalatzen hasten diren 14 edo 16 urteko gazteak, Etxaurira edo Artederretara joateko kotxerik ez dutelako, eta normalean eskalatzen duen jendea. Azken hauei gotorlekukoak entrenamendutarako balio die. Astearen ordu bate edo egiten dute gotorlekuan, sasoiaren egoteko, eta gero asteburuetan mendira joaten dira».

Gotorlekuan egiten den eskalada *boulder* motakoa da. Mendebaldera begira dagoen ehun bat metroko horman, alde batetik bestera ibiltzen dira eskalatzaileak; erori gabe zenbat eta denbora gehiago irau, hainbat hobe.

Unai Agirre donostiarra da eta Nekazari Ingeniaritza ikasten ari da Iruñean. Gotorlekura astean bi alditan joaten da lagunekin eskalatzera. Unai esplikatu duenez, bi eskalada mota daude: mendiko eskalada



eta kirol eskalada. Batzuek horma osoa egiten dute, eta beste batzuek gutiago. Indarren eta gogoen arabera. «Hau ez da oso zaila», esan du Unai. «Gakoa hankak ongi jartzea da. Hori ongi eginez gero, ez dago problemarik. Hankak gaizki jartzen badituzu, aldiz, besoek lehenago sentitzen dute eta lehenago nekutzen zara». Unai ez da eskalatzaile amorratua. «Ez dut materialik, garestia delako. Gotorlekura etortzea da merkeena. Hemen *katuak* (zapata bereziak) besterik ez duzu behar». Xabieren hitzetan, zailena paretara oso altuera berean egitea omen da, harriek markatzen duten marra zuzen horri jarraituz.

Eguraldi ona behar

Hormaren ondoko tunel batean zintzilik aurkitu dugu Santi Espinosa, 27 urteko marcellarra. Anitzetan hurbildu da gotorlekura, nola eskalatzen duten ikustera, baina lehenbiziko eguna du gaurkoa gotorlekuko hormetan eskalatzen duena. «Hau hagitx ongi dago», dio. «Eguraldi ona eginez gero, jende anitz biltzen da hemen, ez baita deus ordaindu behar». Paretara egiteko, gotorlekuko eskalatzaileek ez diote denbora mugarik jartzen beren buruari. Santiri, berak dienez, hogeit bat minutu kostatzen zaio horma osoa egitea. «Ez da zaila, eta aukera pila duzu: zulo handiak, titikiak, arraila anitz.

Batzuk osoa egiteko alde batetik, eta besteak, ordezko. India gogorrakoa da hori, ez da oso, komentua. Unai donostiarra. «Gakoa ongi jartzea da».

SANTESTEBAN

armiarma



Gotorlekuko hormetako zirrikitu, arraila eta zuloetatik esku anitz pasatu da, eta geroz eta handiagoak dira. Zuloak, gainera, txuriz margoturik daude: eskalatzaileen magnesioaren aztarna da.

Eguraldi ona eginez gero, leku paregabea da gotorlekua eskalada egiteko, lasaia eta atsegina. Dena dela, rokodromo publiko baten beharra ikusten dute eskalatzaileek.

• JOSU SANTESTEBAN



Gotorlekura joaten dira eskalatzen hasten diren 14 edo 16 urteko gazteak, Etxaurira edo Artederretara joateko kotxerik ez dutelako, eta baita normalean eskalatzen duen jendea ere. Azken hauei entrenamendutarako balio die gotorlekukoak.

uztai, txapa eta eskopreekin. «Baina 1981 aldera aldamaioak jarri zituzten hormak garbitzeko», erran du. «Eta zeuden *boulder* txapa guziak kendu zituzten, eta bertikalean egitea debekatu zuten geroago. Bi bide besterik ez dira gelditzen. Izan ere, Gotorlekura hurbiltzen den agureari ez zaio gustatzen paretan bainu-jantxidun gizonak ikustea. Nik gaur, hankak ez erakusteagatik eta praka luzeak eramateagatik, bero izugarria jasan dut. Heldu den astearen praka motzetan etorriko naiz, eta agureak begiratu nahi badu, begira dezala».

Istripuren bat izanez gero udalari erantzukizunik ez eskatzeko debekatu omen zuten gotorlekuan eskalada bertikala egitea. Oraindik gelditzen dira iltze batzuk, eta badago debekuari muzin egiten dion eskalatzailerik, baina gehienek horizontalean egiten dute paretara.

«Nik oso ongi pasatzen dut hemen», dio Alfredok. «Gaur, eskalatzen ari nintzelarik, pentsatzen nuen ez nintzela bukaeraino helduko, baina lasai hartu eta aitzina egin dut. Kontua entrenatzea da. Une atsegina bat igarotzera etortzen naiz honera, ez bizia arriskuan jartzera».

an eta beste hogeita hamarren bat sartzeko eskatu dute. Errotxapean ere antzeko bat dago. Baina honek ez ditu, inondik inora, eskalatzaileen beharrak asetzen, rokodromo publikoa nahi dute, beste hirietan daudenak bezalakoak. Unai Donostian badu rokodromo publikorik. Dena dela, Iruñeko gotorlekua leku aparta dela uste du. «Hiri baten barruan horrelako leku bat aurkitzea zaila da», gaineratu du.

Debeku erlatiboa

Alfredok dioenez, gotorlekuan lehen bazeuden bertikalean eskalatzeko bideak eginak.

→ Asier Zpillikuetza

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskal paremiologia zaharraz hitz bi

Hiru urte pasa dira jada Joseba Lakarrak *Refranes y Sentencias* esaera zaharren bilduma Iruñean agertu zeneko laugarren mendeurrenean editatu berri zuenetik; iazkoan aldiz, 27.173 atsotitzen bilduma kaleratu zuen Gotzon Garatek, paremiologiaren gaiak sortzen duen interesaren erakusgarri.



ESAERAK BILTZEKO SAIOAK BI modutara egin izan dira ertarotik aitzin Europa osoan barrena; alde batetik jakintsu klasikoengandik harturiko maxima bilduma kultoak bazeuden, eta bestaldetik, herri xeheak tokian tokiko hizkuntza nazionaletan sortarazi esaera zatarrenak zeuden. Honako bi eredu hauek uztartuz, "Salomon et Marcolphus collocutores", hau da, Salomonen esaerak eta Markolfen erantzunak jasotzen zituzten saileko izkribuak inprimatu ziren Parisen XVI. mendean estreinakoz, nahiz ezagunak ziren. Betidanik esaerak edo biltzeko irrikia izan bada ere, herri kulturaren adierazle diren neurrian bi unetan gertatu izan da bereziki harako jasomin gori hura, XVI. mendean batetik, eta egungo folkloeraren itzalpean XIX. mendean bestetik.

Esaeren biltzaile apartekoa izateaz gain -*Collectanea Adagiorum*-, Rotterdameko Erasmo izan zen, ausaz, hauen ulertzeko irizpide berriak finkatu zituen. Erasmoren irakaskintzak animaturik, Frantziar agertu ziren esaera herrikoten lehenbiziko bildumak: Jean de la Veprie, *Les proverbes communs* (1490); Jean Gilles de Noyers, *Proverbia gallicana* (1519); Charles de Bouelles, *Proverbiorum vulgariarum libri tres* (1531) eta *Proverbes et dictes sententieux* (1557). Espainian ere bildumak erruz agertu ziren garai bertutik: egile ezagunik gabeko *Refranes famosimos y provechosos glosados* (1509); Iñigo López de Mendoza -Santillanako markisa-, *Refranes que dicen las viejas tras el fuego*; Blasco Garai, *Cartas en refranes*; Hernán Núñez de Guzmán, *Refranes o proverbios en romance* (1555); Juan de Mal Lara, *Philosophia vulgar* (1568); Sebastián Orozko eta Sebastián Covarrubias atasemearen lanak; Melchor de

Santa Cruz, *Floresta española de apothegmas o sentencias* (1574); Juan Rufo, *Los seiscientos apothegmas* (1596); Gonzalo Correas, *Vocabulario de refranes y frases proverbiales* (1627 inguru).

Euskal paremiologia zaharrari bagagozkiola, ezin esan adibiderik ez dugunik, eta beste tokitako tradizioekin gurea erkatuz gero, horren oparo gerta ez dakigukeen arren, ezin uka proportzionalki begiratuta nahikoa baikor egoteko modukoa bai jazoten dela. Ezagutzen dugun lehenbiziko euskal erretrau biltzailea Esteban Garibai Zamalloa (1533-1600) historialari arrasatearra dugu; honek bi esaera sorta idatzi zituen 1592. aldera Juan Idiakezaren eskariz, 1854.era arte ezezagunak izan direnak. Historiaren Akademiak estreinakoz inprimarazi zituen arte alegia. Oraino XVI. mendekoak *Refranes y Sentencias* ezagunak ditugu. Askotan aipatua izan den harri-bitxi honen azkeneko edizio kritikoa Joseba Andoni Lakarrak egin digu -Euskaltzaindiak kudeatu Euskararen Lekukoak bildumaren 19. zenbakia, 1996. ean-. Anberesko Pedro Porrallisek Iruñean zeukan etxean 1596. ean inprimaturiko *Refranes y Sentencias comunes en bascuence declarados en romance con números sobre cada palabra para que se entiendan las dos lenguas* liburuarren ale bakarra ezagutzen zen, ez osorik, Hesseko Landrave artxiduke handien liburutegian, Alemaniako Darmstadt hirian, bigarren mundu-gerran galdutua. Van Eys euskalari holandarrak topatu eta argitara eman zuen 1894. ean; Urkixok ere, Darmstadtteko liburuki osoa argazki-



tan jasota, argitaratu zituen bere RIEV-en 1911-1933 urte bitartean, bide batez, testua garretatik salbatu zuena.

Urkixo izan da, orobat, RS-ek sortarazten dituen galderetajuzko erantzunak ematen ahalegindu zen lehena, Mitxelena eta Lakarraren aurretik. *Refranes y Sentencias*-en ondoan, Lope Martinez de Isasti lezoarrak 86 esaera zahar sartu zituen bere *Compendio historial de Guipúzcoa* 1625.eko liburuan, Mitxelena TAV-en ekarri zizkigunak.

Iparraldera joaki, XVII. mendean lau izan ziren Zuberoa aldean esaera zaharrak biltzeari ekin zitoten egileak, edo lau dira egun ezagun zizkigunak behinik behin. Hiruretan entzutetsuena Arnaut Oihenarte maulearra dugu dudazipirik gabe, euskarazko erretrau bilduma eder bat -olerki kultoekin batera- 1657. ean Parisen argitara eman zuena. Bestalde, Bertran Zalgize edo Saugis zaldun hugonotak sendea zuen Oihenarteri berari igorri esaerak ezagutzen ditugu, berriro ere Urkixori esker, 1908-1909 urteetako RIEV-en aieratu zirenak. Jakes Belak ere (1586-1667) hainbat esaera zahar jaso zituen bere *Tablette argitara gabeetan*, Clément-Simonek lehenbizi eta Mitxelena gero ezagutarazi zizkigutenak. Eta azkenik, Sarako eskolako kidea omen genuen Voltoirek hainbat esaera zahar bildu zizkigun bere *L'Interpret ou traduction du françois, espagnol et basque de Voltaire* 1620. inguruko liburuan -ausaz ezagunagoa dateke Batonan 1642. ean ageri beste edizio hau, *Tresora hirour linguatetaqua: francesa, espagnola eta hasquara*-, eta Gustave Brunetek 1845. ean ezagutarazi zigena.

Patziiku Perurena

Ugaritasun bakartua

GUSTOZ ETA ATSEGIN haundiz leitu berri dut «Paisaje con figuras». Literatura-ren historia lehortraz (honetara agortzen baitira gure beste arte guziak) oraindik leitu ditudan pasarterik hezeenak, batik bat, aurreneko partean.

Sorreran ugaria, nahasia eta bihurria zen mundua, nola ximpletu, urritu eta agortu izan den, edozeinek entenditzeko moduan erakusten digu egileak, hasi Egipto eta Mesopotamiako literatur aztarnarik zaharreneatik eta, *Gilgames OINARRI HARTURIK, KULTURA GREKOLATINOAN BARRENA, BIBLIA GIDARI DUELA, EGUNGO ARRAZIONALISMO LOJIKOAN AGORTU ARTE, GIZA GOGOAK UGALDU DUEN XINPLEZIA ITOGARRIA KLARO AZALDUZ*.

motx esateko, behin politeismo zahar ugari hura eten, eta mila aurpegitako monoteismo zibil antzua sortu zenetik, giza gogoak erakutsi duen taigabeko matraka agorra, (nire harekikoren antzekoa) azaltzen digu gil berak. honatx mami gorriaren eskeleto xuri izan litezken pasarte bi:

inflesio puntua: «k.a.ko zortzigarren milenetik laugarrenera bitarteko aldirian, gizonaren bizimoduak transformazio funtsezkoak eman zituen ekialde hurbilean, oraino gudan eragina dutenak: erregadioan oinarrituriko ekonomia agropekuaria, aginte zentralizatuaren menpeko lankidetzako komunitarioaren koordinazioa eta sedentarizazioa ekarri baitzuen.

orduan sortu zen urbe jainkosa: eraikuntzak, merkatu organizatua, garraioa, artea... ezin izan haren sekitoak baizen. eskritura asmatu zen. giza aberearen promozio-kondena hark, urbearen eta eskrituraren jabe eta zerbitzari bihurtze hark, alegia, ematen dio oraino bere jitea, eta ez du aldatzeko itxuririk. guziz bestera...»

hasiera ximple hutsera beti: «arrazionalismo lojikoak, munduaren sorrera bakar eta xin-

plearen dogma ontzat emanez, big bang delako asmazio merkea sortu du, denboraren hasierari buruzko kirtinkeria edo hutsetiko sorreraren zirtzilkeria. eta egun oraino gizadi osoak kontatera hori eskatzen eta ospatzen badu bere buruaz eta munduaz, bistan da azken bi milenio eta erdian nagusi izan den umezeria espekulatiboari zor zaitola, mendebaldeko zibilizazioak berrezko eta oinarritzko izan duen horri, alegia.

badirudi zientzilariek ezin dutela bestela pentsa, beti hipotesirik ximpleenera jotzen dutela, izadiaren hasiera bakun hori baizik irudikatzen ez duenera. halabaina badira etsenplu apartak, prigionierena kasu: hori ezin dela erakutsi, eta berriro modu espekulatibo humanorik zaharrena atxekitzen baitu, ezinegonkortasun batetik ezinbertzean bestea datorrela igarritz.

kosmogonia egiptoar eta mesopotamikoan «zer da lehenbizi gertatu zena» galderari ematen zaion erantzuna, azalpen aldakor ugaria izan ohi da, gertaera nahasia, protagonista askotarikoz, borondate bihurrikoz, eta apaindura puska ugari zehaztua. halabaina, gerora asmaturiko kosmogonietan, pentsalari presokratikoek, bidenabar egungo eredu zientifikoaren aintzaindaria izandakoek, nahia-go dute betiere elementu soileko singularitasun inzialia, ahalik eta bakartuena eta ximpleena, hala nola, sua, airea, ura, jainkoa, edo big bang delakoa.

kontuak hola, zientifismo sinplifikatzailea ez dator erlijioaren aurka, eta ez dakarkio inolako mehatxurik teologiari. alderantziz, singularitasun inziala eta honen bilakera atxeki dezan ikuskera oro, berez baita bazka teologiko oparo.

hagitz ugaria da ordea liburua, nere betiko soilkeriotan ito naht izateko; literatur urraketa honen harira, bai baitu beste oharpen dizdizari aunitz. beste batean xalagardatuko ditut.

Ziria

• Motxorrosolo •

Abstentzia

ATZERRITIK ITZULI ETA BETIKO BATZOKIA AURKITU ZUELA IRUDITU zitzaien. Goitik beherakoak funtzionatu egin du, eta honetan, erabakia hartua denean gauzatuko da eztabaida. Emaitzek, abstentzia bezainbeste, men egiteko prest direnak zenbatuko dituzte. Hautagai egokiak estrategia bat baino gehiago zaputz dezake.

Txuri Ollo eta Anizeto Morales Zabaldiko kideak

«Zabaldi kanpokoan hitza entzuteko topagunea da»

Iruñeko Zabaldi Elkartasunaren Etxeko kideak dira Txuri eta Ani. Zabaldi nazioarteko elkartasun mugimenduko talde, erakunde eta kolektiboan bilgunea da, baita etorkinena ere.



soslaia

• MIKEL SAIZ

A STELEHENETIK OSTIRALERA kanpo zorraren inguruko jardunaldiak egin dituzte Zabaldin. Diapositiba emanaldiek, hitzaldiek eta Sebastiao Salgadorek *Terra* argazki erakusketak osatu dituzte jardunaldiak.

■ Zergatik antolatu dituzte jardunaldi hauek?

ANI: Urtetik urtera izugarri handitzen ari delako kanpo zorra eta horrek munduko politikan eta ekonomian azken hiru hamarkadetan oso eragin handia izan duela eta izaten duela pentsatzen dugulako. Kanpo zorra da neokolonialismoaren ezaugarriarik adierazgarriena, herri aberatsak duten baliabiderik garrantzitsuena herri txiroak menperatzeko. Gai honen inguruan gobernuek duten azpajoko zikina eta jarrera hipokrita argitu nahi dugu.

■ Zein da konponbidea?

ANI: Salaketa egitea. Gure ustez, kanpo zorra erabat ordainduta dute herri txiroek, eta kanpo zorra ezabatzeko eskatzen dugu baina, aldi berean, munduan herrien artean dagoen harreman politiko eta ekonomikoaren erudia desagertzeko. Bestela, berehala sortuko litzateke berriz beste kanpo zorra bat.

■ Guk zer zor diegu herrialde pobreei?

ANI: Guk ezer ez, baina agintariek eta boterea dauka-

Txuri Ollo Goldaratzek jaio zen, duela 40 bat urte, eta Anizeto Morales Ani, berriz, Donostian, duela 32 urte. Orain Iruñean bizi direnez, "etorkinak" dira eurak ere. Komite Internazionalistak taldeko kideak dira, baita Zabaldiko euskara taldeko kideak ere. Euskaltzaletasuna eta internazionalismoa nola batu daitezkeen galdetu, eta hauxe erantzun digu Txurik: "Norberak beretik hasi behar du zabaltzen besteengana hurbiltzeko".

Honako erakunde eta talde hauek biltzen dira Zabaldin: Iruñeko %0,7 batzordea, Mundo Solidario, Emakume Internazionalistak, Ixim (Chiapasekiko elkartasun taldea), Komite Internazionalistak, Mugarik Gabe, Se-ven Sioux (Ipar Amerikako indioekiko elkartasun taldea), Sodepaz, SOS Arrazakeria, Hirugarren Mundua eta Pakea, MST (Brasilgo lurrik gabekoen mugimendua), RASDen Adiskideak (Sahara) eta Alternatiba".

Talde guzien ekitaldiak koordinatzen dituzte Zabaldin, eta urtean behin Elkartasun Aste monografikoa egiten dute. Duela bi urte, Che Guevararen inguruan hitz egin zuten; iaz, munduko bake prozesuei buruz; eta aurten, kanpo zorra izan dute hizpide.

tenek lapurtu dietena zor dute. Gure lana da bertsio ofiziala deuseztatzea eta haien ahotsa hona ekartzea. Orain gobernu askok esaten dute ezabatzeko dutela zorraren zati bat. Baina horiek itxurak besterik ez dira, komertzioaren bidez etekin izugarri handia ateratzen dutelako. Gobernuen jarrera nahiko hipokrita da, eta egia azaleratzen saiatzen gara Zabaldin.

TXURI: Dena den, nik uste dut denak konplizeak garela. Ez badugu aurka egiten edo isilik gelditzen bagara, kon-

plizeak gara. Zabaldin elkartasun konprometitu edo arduratsua bultzatzen dugu, paternalismo edo maternalismoa alde batera utzita. Mitch hurakana bezalakoak izaten direnean, izugarriko mugimendua sortzen da laguntzeko. Guk ez dugu momentu bateko laguntza humanitarioa egiten, lan politikoagoa baizik.

■ Horrelakoetan lagundu egin behar da?

TXURI: Guk ez diegu ezetz esaten momentu horietako laguntza horiei. Momentuan

igual beharrezkoak dira. Baina kontuan izan behar da nola ematen den laguntza eta noren bitartez bidaltzen den. Laguntza gobernuen bitartez edo Gurtze Gorriaren bitartez bidaltzen badugu, bada-kigu askotan ez dela iritsiko behar dute-nengana. Momentu jakin horietan jendea kontu handiz ibil dadin lan egiten dugu Zabaldin.

■ Zer da Zabaldi, baina?

TXURI: Nazioarteko elkartasunean lan egiten duten taldeak elkartzeko toki bat da. Eta kanpokoan hitza entzuteko leku bat ere bada. Herri pobreen egoerak hemengo jendeari ezagutarazten saiatzen gara, hangoak ekartzen.

■ Nola sortu zen Zabaldi eratzeko ideia?

TXURI: Munduan bankuak eta enpresak elkartzeko dira, baina ezkerre beti dago sakanaturik. Nazioarteko elkartasunaren alorrean ari ginenok elkartu nahi genuen. Hala, elkarrekin errazago lan

egiten da, nahiz eta bakoitza autonomia osoz ibiltzen den.

■ Nola funtzionatzen du?

TXURI: Baditugu bi gela bilertarako eta areto handi bat hitzaldiak egiteko. Talde bakoitzak bere egun eta orduak ditu elkartzeko, eta bakoitzak bere ekintzak antolatzen ditu. Zabaldin jardunaldiak, hitzaldiak, erakusketak, jaialdi-txoren bat eta ikastaroak egiten dira, betiere nazioarteko elkartasunaren inguruan. Elkartasun astea urtean behin egiten dugu, eta horretan parte hartzen dute talde guziek. Baina gero bakoitzak du bere lana urte osoan. Horretaz aparte, badugu euskara talde-txoa bat eta hilabetean behin zeozer antolatzen saiatzen gara. Zabaldi irekita dago beste talde batzuentzat, bai eta etorkinentzat ere, Zabaldi topagune bat baita. Gainera, badago te-etxe edo kafe-etxe bat eta merkataritza zuzeneko denda bat.

■ Bi urte egin ditu Zabaldik. Zein balorazio egiten duzue?

ANI: Hasierako helburua zen talde guziaz leku batean elkartzea bizi izateko eta mugimendua handiagoa izan zedin. Eta hori bete egin da. Jende de-

zente dago hemen lan egiten, eta antolatzen den guziaz koordinatu egiten da. Eta lanean jarraitzeko indarra ematen di-zu beste taldeetako jendea ikustea. Gainera, Zabaldi etorkinentzako txokoa ere bada eta hori ontzat jotzen dugu. Hasieran ez zuen funtzionatzen, baina duela urte eta erdi marokoar batek hartu zuen te-etxea eta etorkinak biltzen hasi ziren. Hori dela eta, leku askotako hizkuntzak entzuten dira Zabaldin.

→ Asier Azpilikueta



Nafar Kronika

Pello Goñi

Elementuak

Ura. Ur aunitz, erauntsika. Seinale ona behar du izan. Nafarroa Oinezen botata ere. Zergatik beti dena alderdi txarretik hartu? Ur goiena ur barrena... Euskal eta antzinako hainbat herriren mitologian urak gauzak eta gizakiak eraberritu eta sortzeko indarra izan ohi du beti. Espero dezagun bada, igandeko ur haiek kontzientziaren bat, bederen, aldatzeko balio dezatela. Saturnoren indarrek lagundu gaitzatela.

Sua. Zerutik datorrena. Su hondatzailea. Guztiz ahantzita dauzkagu Irakekoak Pirinioko mazela hauetatik, baita Pirinioz haratagotik ere. Ameriketean, ordea, egunero oroitzen dira iraktarrez. Gerla ez baita bukatu, informazioa kontrolatzen duten bost agentziek arreta desbideratu digute gatazka horretatik, baina bere horretan segitzen du: ia urte bat Estatu Batuen bonbardaketak —orain porlanezkoak omen dira— pairatzen. Bulkanoren amorruak zigortu bitza.

Lurra. Atarrabiako tripartitoaren begietara bota dutena. Gatazkaren ondorioak. Zori txarra gurea, gatazkaren ondorioetan behin betikoz bizitzera kondenatuak, jorkaera horretantxe geldirik, gatazko estatuak bagina bezala. Askotan indarkeriaren kultura nahi gabe sartzen zaigu hezur muinetaraino eta arrunt zaila da piztia uxatzea. Zibelezen lehoiek bidea erakutsi diezagute.

Airea. Airea doinu goxo bilakaturik entzun nahi dugu. Baina haize-zurrumbilo honetan ez da kantuen hitza aditzen. Airean gelditzen dira hitz eta itxaropen aunitz. Eoloren hegal luzeek agindutako lurraldera eraman gaitzatela.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Tafalla:** Gaur, gaueko hamabietan, Txutxin Ibañezek kontzertu mexikarra eskainiko du Txoko tabernan.
- **Lizarra:** Bihar, 23:00etatik aurrera, Buitraker eta Malentzaku ariko dira gaztetxean.
- **Gares:** Etzi, igandearekin, Willy de Ville Gares aretoan izanen da, 23:00etan.

HITZALDIAK

- **Lizarra:** Gaur, 20:00etan, Felix Grande poetak *De cómo Don Antonio Machado dibujó nuestro rostro* izenburuko hitzaldia emanen du.

BERTSOLARIAK

- **Iruñea:** Asteartean, Bertso Aroa 99ren barnean, Andoni Egaña eta Jon Maia ariko dira Erraldoien txokoan, 20:00etatik aurrera.

ANTZERKIA

- **Zangoza:** Bihar La Trova taldeak *Lecciones Musicológicas* lana taularatuko du, 20:00etan, Karmengo entzutegian.
- **Orotz-Betelu:** Bihar, larunbatarekin, *El mundo de Puff* lana jokatu du Sambhu Teatro taldeak herriko frontoian, 20:30etan.
- **Erronkari:** Bihar, Teatro Bajo La Arena taldeak *La Odisea* lana antzeztuko du kiroldegian, 20:45etan.
- **Iruñea:** Larunbatean eta igandean, 20:00etan, *La opinion de Amy* antzeztuko dute Amparo Barok eta Angeles Martinek Gaiarre antzokian.
- **Bakaiku:** Igandean, 18:00etan, Kollins Clown taldeak *Kiriko oilarra* eta *Hiru txerrikumeak* antzezlanak oholtzaratuko ditu herriko frontoian.
- **Iruñea:** Igandean, 20:00etan, Producciones Imperdibles taldeak *Un poeta en Nueva York*

antzezlana taularatuko du Nafarroako Antzerki Eskolan.

- **Iruñea:** Ostegunean, *Mingain haragia*. Emakume ipuinak muntaia eskainiko du Joxe Mari Carrerek Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:30etan.

DANTZALDIAK

- **Ziordia:** Igandean, 12:30etan, Eguzki Eder dantza taldea herriko pilotalekuan izanen da.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Gaur bukatzen da Karrikiriren soziolinguistika ikastaroan izena emateko epea. Urriaren 26a, 28a, azaroaren 2a eta 4an dira ikastaroak, 17:00etatik 21:00etara.
- **Berriozar:** Alde batetik, irratigintza ikastaroa egingen dute urriaren 23an eta 30an eta azaroaren 6an, 13an, 20an eta 27an (larunbatak), goize-

ko 11:00etatik 14:00etara. Beste aldetik, urriaren 28an bukatuko da Jon Alonsok gidatuko duen *Lau ibilaldi ipuinean barrena* literatura lan-tegian izena emateko epea. Lau saio egingen dira, azaroaren 4an hasita. Berriozarko kultur etxean, 19:00etatik 21:30etara. Ikastaroan edo lan-tegian izena emateko, deitu 948-300005 telefonora (Euskara Zerbitzua).

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—A nosa Terra non é nosa, rapaces.

Gure lurra ez da gurea, haurrak